


IZOKIN ATLANTTIARRA URUMEA IBAIAN

Iñaki Sanz-Azkue

Izokin atlantiarra (Salmo salar) salmonidoen familiako arraina da. Arrain migratzailea izanik, bere bizi-zikloa ibaia eta itsasoaren artean burutzen du, ibaira ugaltzera jotzen duelarik. Historian zehar milaka izokinek aukeratu dute Urumea ibaia euren arrautzak jartzeko. Hau dela eta, industrializazio garaia iritsi aurretik hernaniar askoren bizimoduan garrantzi handia izan zuen, hainbat familia izokinaren arrantzatik bizi izan baitzen. 1942tik aurrera, aldiz, Urumeak jasandako eraldaketa kaltegarriak eta kutsadura direla eta, izokina Hernaniko uretatik desagertu zen, 80ko hamarkadan, ibaiaren uren kalitatearen hobekuntzari esker, berriro ere azaldu zelarik.



Izokin atlantiarra (Salmo salar).

Izokinaren bizi-zikloa eta migrazioan zehar aurkitzen diuen ozto-poak.

Itsasotik Urumeara sartu ostean, izokina azarotik urtarrilera artean ugaltzen da. Errutegiak jartzeko tamaina txikiko harriz osaturiko gune legartsuak aukeratzen ditu, sakonera askorik gabekoak eta ur-korronte jakin batekoak, jarriko dituen arrautzak ondo oxigenatuak eta era berean, babestuak egon daitezen. Erruteko leku apropos bat aukeratu ostean, emeak arrautzak askatu eta arrak haziarekin estaltzen ditu. Hemendik

sortuko diren arrainkumeak harri artean biziko dira udaberri hasiera arte eta urte bete edo bi urte ibaian igaro ondoren itsasora joko dute martxo-apirila inguruan ibaiaren korronteak lagunduta.

1950. urtetik hona egindako hainbat ikerketek adierazten duten bezala, Estatu Batuak, Kanada eta Europako zenbait herrialdeetako ibaietatik elikatzen itsasora joandako izokin gehienak (Urumeakoak barne) Groenlandiako ur hotzetara joaten dira¹. Bertan, negu bat, bi edo hiru iragan


ondoren berriro ere ibaira bueltatzen dira ugaltzera. Itsasoan 2-3 urte pasaturikoak 3,5 - 8 kg. arteko pisua izan ohi dute eta Urumea ibaian udaberrian zehar sartzen dira normalean. Urte bakarra igaro duten izokinak, aldiz, 2 - 3 kg artekoak izaten dira eta ekainean eta negu hasiera artean sartu ohi dira.

Itsasotik ibairako bidai honetan izokinek energia asko xahutzen dute. Izan ere, Groenlandiatik Urumearainoko bide luzea egin ostean, ibaian gora egiten dute, korrontearen aur-

¹ Eloegi, A & Garin, I. 1999. *Basabizitzaren kudeaketa*. Udako Euskal Unibertsitatea. Bilbo.



Gizakiak Urumea ibaian eraldaketa handiak eragin ditu.



Fagollagako uharka erdialdean arrainak igotzeko eskala duelarik.

ka, ahalik eta ugaltzeko lekuri hoberena aurkitzeko asmoarekin. Ernalketaren ondoren izokin gehienak, nekearen nekez, hil egiten dira ibaian bertan. Indar apur bat geratzen zaientek, aldiz, berriro ere Groenlandiara bidea hartzen dute eta ibaian behera jotzen dute itsasoaren bila.

Burutzen dituen migrazio luze hauetan zehar izokina oztopo askorekin aurkitzen da, hauetariko gehientsuenak gizakiak sorturikoak. Hernaniko herriak jasan zuen industrializazio prozesuak Urumea ibaian eragin zuzena izan zuen. Honela uraren indarra produkzioarako aprobetxatzearen, ibaian zehar presak edo uharkak eraiki ziren. Horrez gain, ibai ertzak ere eraldaketa sakona jasan du, industria-guneak sortu dira ibai-arroa guztiz eraldatuz, eta egun uraren kalitateak hobera egin duen arren, Hernanitik itsasoratzen den gunera, hau da, Donostiara, ibaiak ez du garai batean zuen egoera berreskuratu.

Ondorioz, Urumeatik itsasora doazen izokinkumeek, beste hainbat

ibaietan gertatzen den bezala, oztopo asko aurkitzen dituzte bidean. Itsasorako migrazioan, uraren korrontea jarraitzen dutenez ibaian behera egiteko, korrontea berak kanaletara eramaten ditu zentraletako turbine-taraino iritsi daitezkeelarik eta bertan hiltzeko arrisku handiarekin aurkitzen direlarik². Groenlandiara iristen direnek, bertan arrantza dute etsai nagusitzat, arrantzaleen sareetan erortzen baitira³.

Ibaira bueltan, aldiz, oztopoak areagotu egiten dira. Hauetariko asko historian zehar salatuak izan dira. 1879an, adibidez, Urumeako bokalean, Donostian, sareak erabiliaz arrantza egiten zutela eta, Hernaniko herritar batzuk euren kexa aurkeztu zioten Marinako Koronel Komandanteari. Koronelak bokaleko arrantza debekatzen zuen legea idatziz erantzun zuelarik Hernaniko Udalera:

*"Desde 1º de Mayo hasta la misma fecha de Octubre queda prohibido el uso de toda clase de redes dentro de los puertos e inmediaciones de las embocaduras de los ríos. Hernani, Abril 9 de 1879"*⁴.

Hau da, legeak, izokin asko Urumea-
ra igotzen diren hilabeteetan bokalean
arrantzatzea debekatzen zuen, arrain
migratzaile hauek ibaian gora igotze
a ez galarazteko.

Baina hau ez da izokinak historian
zehar jasan duen oztopo bakarra.
1905. urtean Hernaniko arrantzale
talde batek honako eskaera luzatu
zion Hernaniko Udalari:

*"Que por no llenar las presas construidas en el río Urumea, para los diferentes aprovechamientos de aguas, las condiciones reglamentarias, impiden el acceso del salmón a los criaderos donde desova dicho pescado, el cual al verse imposibilitado de pasar aguas arriba a los criaderos, torna al mar, sin duda para ir a otros ríos, con lo cual de día en día, disminuye del Urumea, desapareciendo una riqueza considerable con la falta en sus aguas de tan sobrado pez. 28 Junio de 1905"*⁵.

Idatzi honetan ikusten den moduan,
duela mende bat presak oztopo ga-
rrantzitsua ziren izokinaren migra-
zioarako. Egund, nahiz eta Urumean
izokinen pasorako eraikitako eska-

² Ekolur & Ikaur. 2006a. *Bases para la elaboración de las directrices sobre el uso sostenible del agua en Gipuzkoa. Producción Hidroeléctrica en Gipuzkoa*. Gipuzkoako Foru Aldundia, Garapen Eramangarriko Departamentua, Obra Hidraulikoetako Zuzendaritza Nagusia.

³ Eloegi, A & Garin, I. 1999. *Basabizitzaren kudeaketa*. Udako Euskal Unibertsitatea. Bilbo.

⁴ HUA-AMH. A-8-II-1/3. Administración municipal. Policía municipal. Policía rural. Pesca fluvial. Policía de ríos, aprovechamientos de aguas, repoblaciones piscícolas, reglamentación del ejercicio de la pesca, etc. 1769-1919.

⁵ Idem.

lak direla eta, hein handi batean arazo hau konpondurik dagoen, Gipuzkoako ibai askotan arazo garrantzitsua jarraitzen du izaten⁶.


Baina oztopo fisikoak ez ezik, bada beste hainbat faktore izokinaren bizi-zikloan eragin zuzena dutenak. Egungo nekazaritzarako eta basogintzarako teknika berri askoren hedapenak, baita egurra ateratzeko pisten etengabeko eraikuntzak, erosioa sortzen du ibai ertzetako lurretan, buztina eta harea ibaira jauzten direlarik errutegiak estaliz eta arrainkumeek hain beharrezko dituzten errutegietako legar arteko gunen oxigenatuak tapatuz eta suntsituz⁷. Eta zer esanik ez, industrietan ibaira botatzen dituzten hondakin kimikoek kutsadura sortzen dute, izokinaren presentzia erabat deuseztatuz.

Izonika eta hernaniarren arteko harreman estua.

Izokinak historian zehar garrantzi handia izan du Hernaniko herriarentzat. Hainbat familiarentzat eta herriko ekonomiarentzat ere diru-iturri garrantzitsua izan da. Arrazoi hauek direla eta, izokinaren arrantzak istilu eta salaketa asko sortu zituen garai batean Hernaniko herritarren artean, baina batez ere Donostia, Astigarraga, Hernani eta kasuren batean, Goizuetakoen artean izan ziren liskar handienak.

Urumea ibaia ezaguna izan da urteetan zehar izan duen aberastasunagatik:

*"Es río de muy regaladas truchas, salmones en abundancia, salmonetes, que llamamos 'izokisemes', albures, platuzas y algunos otros"*⁸.



Gazte bat Urumea ertzean ibaiari begira (Arg.: HUA Hernaniko Udal Artxiboa).

Hau dela eta, izokinaren arrantzarako ibai proposa zen eta 1933tik 1936ra arte oraindik ere izokin asko harraipatzen zen:

*"Puede afirmarse que el promedio de salmón capturado en estos cuatro años no bajó de 2000 kilos por año, con una cifra aproximada de 200 piezas, llegando a unas 300 los años buenos. Se recuerda como cifra de peso máximo, un ejemplar de 33 libras (15 kilos y medio)"*⁹.

Ibaia izokinetan aberatsa izanik ere, XVI. mendean bizi izan ziren hernaniarrek ez zuten izokinaren arrantzaz gozatzeko aukerarik eduki, izan ere, Donostiatik eta Hernanitik mugak jarri zituzten 1531 eta 1548ko dokumentuetan ikusten den bezalaxe:

*"...los Concejos de San Sebastián y de Hernani arrendaban en público remate la exclusiva de la pesca de salmones en el río Urumea; no obstante, en 1564 se dio licencia para que, en el término de seis años siguientes, pudiese pescar cualquier vecino, plazo que se presume fue prorrogado indefinidamente"*¹⁰.

Aukera hau ikusirik familia askok izokinaren arrantzaz bizitzea erabaki zuen. 1880an Auzitegiko lehendakariak Hernaniko alkateari bidalitako eskutitz batean hala zioen:

*"Me consta que el único elemento de vida para proporcionar recursos en numerosas familias particularmente la de Olloquiegui es el de la pesca de salmón...San Sebastián, 12 Julio 1880"*¹¹.

Eta turismoa ere erakartzen zuen herrira 1900. urte inguruan:

"Que el Urumea era río famoso, que atraía pescadores y turistas, es conocido (Munibe, 1950)".

⁶ Ekolur & Ikaur. 2006b. *La fauna acuática en Gipuzkoa*. Gipuzkoako Foru Aldundia, Garapen Eramangarriko Departamentua, Obra Hidraulikoetako Zuzendaritza Nagusia.

⁷ Elósegi, A & Garin, I. 1999. *Basabizitzaren kudeaketa*. Udako Euskal Unibertsitatea. Bilbo.

⁸ Sección de Ictiología y Piscicultura. 1949. *Algo de historia sobre los ríos guipuzcoanos*. Edit. Munibe.

⁹ Sección de Ictiología y Piscicultura. 1950. *Siguiendo la historia de nuestros ríos*. Edit. Munibe.

¹⁰ HUA-AMH. A-8-II-1/1. Administración municipal. Policía municipal. Policía rural. Pesca. Documentos relativos a la pesca de salmones en el río Urumea... 1548-1824.

¹¹ HUA-AMH. A-8-II-1/3. Administración municipal. Policía municipal. Policía rural. Pesca fluvial. Policía de ríos, aprovechamientos de aguas, repoblaciones piscícolas, reglamentación del ejercicio de la pesca, etc. 1769-1919.

Beraz, urteetan zehar izokinak garrantzi ekonomiko handia izan zuen Hernanin eta Urumeak zeharkatzen zituen herri guztietan, eta horrek era guztietako haserreak eta istiluak sortu zituen euren artean. 1900. urtean, adibidez, Hernaniko hainbat herritarrek salaketa jarri zuten Udalean Urumea ibaia jasaten ari zen gehiegi-keriengatik:

*"Los abusos que en el río Urumea se vienen cometiendo este año, con más intensidad si cabe que en los precedentes apelando al desdichado y reprobado medio del empleo de la cal y de otras sustancias que destruyen no solo la pesca sino también la cría y acaso el germen que algún día habrá de enriquecer el río...destruyen la riqueza que contiene el río Urumea. 13 Julio de 1900"*¹².

Dokumentu askok ere Hernaniarrek Astigarraga eta Donostiako herritar batzuen aurka jarritako salaketak aipatzen dituzte. Kexatzen dira, sare bidez Urumea ibaia ixten zutela izokin-en Hernanirako migrazioa galeraziz:

*"...han intentado de hacer salmoneras y nasas acotando y cerrando con ellas toda la madre del río, y si a lo tal se hubiera dado y se diere lugar adelante, a la dicha villa e a los vecinos de ella se seguirá mucho daño"*¹³.

Baina agian harrigarriagoa da 1879an arrantzale batzuk Donostiako Sta. Katalina zubian zuten jarrera zela eta, herritar batzuk jarri zuten salaketa:

*"...parece práctica constante entre aquellos pescadores el asustar los salmones arrojando piedras, operación que se hace á la vista de todo el público que se estaciona en el puente..."*¹⁴.

Aurreko dokumentuek erakusten duten bezala, izokina oso espezie garrantzitsua izan da hernaniarrentzat, Urumea ibaiaren dibertsitatearen eredu ez ezik, familia askorentzako diru iturri bakarra eta herriarentzako diru iturri garrantzitsu ere izan baita.



Izokinek ur-kalitate altuko errekek aukeratu ohi dituzte erruteko. (Arg: Joxe Zuza).

Izokinaren egungo egoera Urumea ibaian.

Bere bizi-zikloa betetzeko izokinak ur-kalitate oneko ibaiak behar ditu, urtsuak, gune legartsuak eta putzuak tartekatuko dituenak, arroa kontserbazio egoera onean mantentzen dutenak eta euren errunlekuetara iristeko oztoporik edukiko ez dutenak. Hau dela eta, izokina ibaiaren egoeraren adierazle ona dela esan ohi da eta gure ibaien biodibertsitate aldetik duen garrantzia dela eta, interes komunitarioko espezie moduan dago katalogaturik. Beraz, izokinak bere bizi-zikloa ixteko ezaugarriak betetzen dituen ibaia, neurri batean, egoera onean dagoen ibaia dela esan daiteke.

XX. mendeko hasiera arte Urumea ibaiak hein handi batean bere ezaugarri naturalak mantentzen zituen. Ordura arte, ibaia izokinetan aberatsa zen eta Gerra Zibila iritsi artean, oraindik ere, arrantza oparoa zen:

*"...se sacaban cantidades grandes de salmonete o esguín..."*¹⁵.

Berrogeiko hamarkadan Urumea ertzean eraiki ziren paper-fabrikek ibaia erabiltzen zuten euren hondakin guztiak isurtzeko. Horrela, ibaiaren ur-kalitateak nabarmen egin zuen behera, izokina Urumeako uretatik desagertu zelarik. Garai hartan Gipuzkoako errekei buruz egindako lan batek dioenez, ordutik aurrera asko jota izokin bakarren bat ikusten zen urtean:

*"El año 1946, algún salmón, o mejor una pareja de salmones, debió efectuar su freza en el río Urumea...Es incomprensible como llegaron a aquel lugar...En fecha posterior han sido 'cazados' algunos ejemplares aislados, pero ya puede considerarse el salmón totalmente extinguido"*¹⁶.

¹² Idem.

¹³ Murugarren, L. 1970. *HERNANI su historia e instituciones*. Caja de Ahorros Municipal de San Sebastián.

¹⁴ HUA-AMH. A-8-II-1/3. Administración municipal. Policía municipal. Policía rural. Pesca fluvial. Policía de ríos, aprovechamientos de aguas, repoblaciones piscícolas, reglamentación del ejercicio de la pesca, etc. 1769-1919.

¹⁵ Sección de Ictiología de Aranzadi. 1958. Situación actual de los ríos de Guipúzcoa, Vizcaya y Alava en 1958. *Esquema de la situación actual de los ríos de la región: Guipúzcoa*. Edit. Munibe.

¹⁶ Sección de Ictiología y Piscicultura. 1950. *Siguiendo la historia de nuestros ríos*. Edit. Munibe.

Laurogeiko hamarkadaren amaieran ibaiaren ur-kalitatearen hobekuntzan eta arrainak iragaitzeko presetak eskalen eraikuntzan egindako lanak aurrerapen handia izan ziren garai batean amuarrain, izokin, plautuxa, aingira eta beste hainbat espezieetan aberatsa izan zen ibaiaren berreskurapenean. Bestalde, Gipuzkoako Foru Aldundiak izokinaren alorrean egindako ikerketa eta lanek Urumeako populazioaren ezagutza

maila handiagoa ekarri dute. Besteak beste, 1993tik aurrera izokin birpopulaketak burutzen dira urtero. Honela, populazio naturalari laguntza ematearren 20.000 izokinkume askatzen da ibaian. Maiatza - ekaina aldera 5 zm-ko alebinak askatzen dira. Otsaila - martxotik aurrera, aldiz, 12 bat zm-koak. Birpopulatzen diren izokinkume guztiak Urumeako izokinen arrautzetatik sorturikoak dira eta Bidasoako Ehiztarien eta Arran-

tzaleen Elkarteko pizifikatzaileek hazten dira.

Urteaz urte, Gipuzkoako Foru Aldundiak Urumeako izokinaren egoera aztertzen du, ibaian sartzen den kopurua, sex ratioa eta biometria kontuan izanik. Hurrengo taulan, 1993tik aurrera Urumean sartu diren izokin kopurua erakusten da (1 I.M: itsasoan urte bakarra egon direnak. 2 I.M: itsasoan bi urte pasa dutenak).

URTEA	1 I.M	2 I.M	GUZTIRA
1993	3	0	3
1994	17	1	18
1995	25	2	27
1996	71	11	82
1997	42	5	47
1998	61	5	66
1999	29	4	33
2000	81	6	87
2001	53	7	60
2002	165	19	184
2003	22	3	25
2004	51	13	64
2005	154	5	159
2006	39	17	56
2007	47	13	60
GUZTIRA	860	111	971

Urumea ibaian sarturiko izokin atlantiar helduen kopurua (Gipuzkoako Foru Aldundiaren datuak).

Urumeako izokin populazioaren egoera asko hobetu den arren, ibaiak azken mendean jasan dituen erasoak oraindik ere nabariak dira eta eragin zuzena dute izokinaren bizi-zikloan. Hernaniko herriarentzako industriaren garrantzia ukaezina dela eta, Urumea ibaiak eta bere inguruneak osatzen duten ekosistemaren hobekuntza eta Hernaniko industri-garapena uztartuko dituen gestio edo kudeaketa lerro bat jarraitzea ezinbestekoa da. Hau eginez gero, oraindik ere posible izango litzateke Urumeako izokinarekin egiten diren azterketek duten helburua betetzea: urtero, Urumea ibaiak, bere bizi-zikloa gizakiaren laguntzarik gabe aurrera eramango duen izokin-populazio iraunkorra edukitzea.